



OFI-C-2023-0074
ACA/vov

Gipuzkoako Foru Aldundiak datorren otsailaren 3an hasiko ditu A-15 autobioako Gorosmendiko (Iruñerako noranzkoan) eta Oindolarreko (Donostiarako noranzkoan) tuneletako obrak, tunelen estaldura sendotzeko eta instalazioak egokitzeko helburuarekin.

Obra horiek era seguruan egiteko eta autobia segurtasun neurri egokiekin irekita mantendu ahal izateko, Gorosmendiko tuneleko Iruñerako noranzkoan eta Oindolarreko tuneleko Donostiarako noranzkoan dauden hodiak itxiko dira, eta tunel bakoitzeko beste hodietaik behin-behineko desbideratzea egingo da. Gainera, salgai arriskutsuen garraioan aritzen diren ibilgailuen joan-etorriak murriztuko dira, eta galiboa 4,5 m-ko altuerara eta 3 m-ko zabalerara mugatuko da. Muga horiek indarrean egongo dira lanek irauten duten zortzi (8) hilabeteetan.

Desbideratzea era seguruan egin ahal izateko beharrezkoa da zirkulazioa erabat moztea. Aurreikusitako lanak egin ahal izateko, zirkulazioa erabat eten behar da bi noranzkoetan 48 orduz. Andoaingo noranzkoan Berastegiko lotunetik aurrera egingo da mozketa, eta, Iruñerako noranzkoan, berriz, Sorabillako (Andoain) lotunetik aurrera. Autobia bi noranzkoetan itxiko da otsailaren 3ko 22:00etatik otsailaren 5eko 22:00ak arte.

Era berean, ibilgailu astunek GI-2130 errepidetik (Tolosatik Lekunberrira doan errepidea) joatea debekatua izango dute, hortaz, N-I errepidea hartu beharko dute ordezko bide bezala.

Autobia bi noranzkoetan moztu bitartean egin beharreko lanak dira euste-hesi bat jartzea eta galiboa kontrolatzeko eta trafikoa kudeatzeko sistema bat ezartzea.

Azpimarratzekoa da A-15 autobioaren Andoaingo noranzkoan egingo den mozketak erabiltzaileek beste ibilbide batzuk erabili behar izatea eragingo duela.

Berastegi, Elduain edo Berrobi bezalako tokiko helmugak dituzten A-15 autobioako erabiltzaileek soilik egin ahal izango dute bira Berastegiko lotunean, ondoren GI-2130 errepidetik (Tolosa-Leitza errepidea) zirkulatuz helmugaraino iristeko.

Nafarroatik Gipuzkoarako ibilbide luzeetarako, N-I errepidea gomendatuko da Altsasuraino, Irurtzunen A-10 autobia hartuz (Sakanako autobia).

Gipuzkoatik Nafarroarako ibilbide luzeetarako, Iruñerako noranzkoko bidea ixtearen ondorioz, A-15 autobioako erabiltzaileek N-I errepidetik jarraitu beharko dute, Gasteizerantz, Altsasuraino, eta A-10 errepidetik jarraitu (Sakanako autobia) Irurtzuneraino.

La Diputación Foral de Gipuzkoa tiene previsto comenzar las obras de los túneles de Gorosmendi sentido Pamplona y Oindolar sentido San Sebastián de la A-15 el próximo 3 de febrero, con el objetivo de mejorar el revestimiento de los túneles y adecuar sus instalaciones.

Para ejecutar estas obras de manera segura y poder mantener la autovía abierta al tráfico con medidas de seguridad adecuadas, se cerrarán los tubos sentido Pamplona del túnel de Gorosmendi y sentido San Sebastián del túnel de Oindolar y se realizará un desvío provisional por los otros tubos de cada túnel. Además, se restringe el paso de vehículos con mercancías peligrosas y se limita el galibo en altura a 4,5m y en anchura a 3m. Esas limitaciones estarán activas durante los ocho (8) meses que se estima dure la obra.

Para poder realizar el desvío de manera segura es necesario cortar el tráfico por completo. La ejecución de las tareas previstas implica el corte total al tráfico en ambos sentidos durante 48h. En sentido Andoain el corte se realizará desde el enlace de Berastegi, mientras que en sentido Pamplona se realizará desde el enlace de Sorabilla en Andoain. El corte de la autovía en ambos sentidos se realizará desde las 22:00 horas del 3 de febrero hasta las 22:00 horas del día 5 de febrero.

Así mismo, se prohibirá el paso de vehículos pesados por la carretera GI-2130 (carretera de Tolosa a Lekunberri), por lo que los vehículos pesados deberán tomar la N-I como vía alternativa.

Las tareas a realizar durante el corte de la autovía en ambos sentidos incluyen la instalación de una barrera de contención y la implantación de un sistema de control de galibo y gestión del tráfico.

Se debe subrayar que el corte en sentido Andoain obligará a los usuarios de la A-15 a tomar otros itinerarios.

Sólo permitirá realizar el giro en el enlace de Berastegi y circular por la GI-2130 (carretera de Tolosa a Leitza) hasta su destino a aquellos usuarios que tengan destinos locales (como Berastegi, Elduain o Berrobi).

Para itinerarios de largo recorrido desde Nafarroa hacia Gipuzkoa, el itinerario recomendado será la N-I hasta Altsasu tomando la A-10 (Autovía de la Sakana) en Irurtzun.

Para itinerarios de largo recorrido desde Gipuzkoa hacia Nafarroa, el corte en sentido Pamplona obligará a los usuarios de la A-15, a continuar por la N-I en sentido Vitoria hasta Altsasu continuando por la A-10 (Autovía de la Sakana) hasta Irurtzun.



OFI-C-2023-0074
ACA/vov

Lekunberrira edo Leitzara doazenek, GI-2135 errepidea (Tolosa-Lekunberri), Tolosan barrena, erabili ahal izango dute, aukeran.

UTE TÚNELES OINDOLAR Y GOROSMENDI aldi baterako empresa elkarteak egingo ditu lan horiek.

Desbideratzea behar bezala seinalizatuko da.

Barkatu eragozpenak.

Los vehículos con destino Lekunberri o Leitza podrán opcionalmente utilizar la carretera GI-2135 (carretera de Tolosa a Lekunberri) por Tolosa.

Será UTE TÚNELES OINDOLAR Y GOROSMENDI la empresa que realice los citados trabajos.

El desvío estará convenientemente señalado.

Rogamos disculpen las molestias.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

OFI-C-2023-0074.pdf